

# Zer egin zorriak edo bartzak daudenean ?



Buruko **zorriak** intsektu txiki batzuk dira, hegorik gabeak, bizirauteko pertsonen odola behar dutenak. Ez dute giza gorputzetik kanpo bi egunetik gora irauten.



**Zorriek** ez dute hegaz egiten, saltorik ere ez, baina azkar mugitzen dira ile lehorrean. Pertsona baten burutik bestearenera kontaktuaren bidez pasatzen dira, eta objektu pertsonalak partekatzean (toailak, txanoak, orraziak, ...)



Bartzek, hau da zorrien arrautzek, ur tanta itxura dute, ilearen sustraietan atxikitzen dira, eta ez dira erraz askatzen.

## Zer egin susmoak daudenean...

- 1 **Ilea aztertu**, batez ere garondoa eta belarri ostea, ea ileari itsatsitako bartzik edo zorri bizirik dagoen ikusteko. Bartzak zorriak baino errazago ikusten dira.
- 2 **Ilea hezetu**, bustita dagoenean zorriak gutxiago mugitzen dira-eta.
- 3 **Ile hezea askatu** eta xerloetan banatu.
- 4 Xerlo bakoitza **orraztu** sustraietatik puntaraino **orrazi-xehe** bat erabiliz (hagin luze eta tarte estudun orrazi berezia, ahal dela metalezkoa, zurruntasunagatik).
- 5 Orrazia pasatzen den bakoitzean **begiratu argitara**, zorririk edo bartzik dagoen ikusteko. Ganoraz orrazteko 15-30 minutu beharko dira.
- 6 Prebentzio-neurri moduan aipatutakoa aldi-aldi egin.

## Zer egin agerpenak daudenean...

- 1 Bartz edo zorri biziak ikusiz gero, **zorrien kontrako produktu pedikulizida bat erabili**, betiere prospektuko argibideak jarraituz (lozioak xanpuak baino eraginkorragoak dira).
- 2 Aplikazio denbora igaro ondoren, **garbitu ilea** ohiko xanpuarekin eta uretan aklaratu.
- 3 Ile umela **orrazi-xehearekin zehatz-mehatz orraztu**, zorriak eta bartzak ezabatzeke.
- 4 Jarraitu orrazi-xeheaz orrazten txandakako egunetan **harik eta bartzak desagertu arte**.
- 5 Komenigarria da 2. aplikazio bat ematea, 7-10 egun igaro ondoren.

- Zorriak izatea ez da higiene txarraren seinale.**
- Familiako partaide guztien ilea aztertu. Tratamendua, beharrezko denean baino ez aplikatu.**
- Jakinarazi ikastetxekoei eta hurbilekoei.**
- Ez erabili inoiz zorrien kontrako produkturik kutsatzea saihesteko.**